



Murgilduz

Justo Egaña

Euskara irakasteko metodogintzan eginiko bidea islatu nahi dugu hemen; euskararen irakaskuntzan ezer onik egin bada, besteak beste tresna hauei esker izan baita.

ZUTABEren arduradunak, duela hilabete batzuk, “egilearen eskutik” txoko honetarako *Murgilduz* liburuari buruzko iradokizun eta gogoeta hainbat idazteko eskaria luzatu zidan.

Gogoz eta aldi berean gogait jaso nuen bere gonbitea. Gogoz norbait behintzat gure lanaz gogoratu zelako, gogoz *Murgilduz* liburuaren berri emateko leihoa irekitzen zidalako, gogoz hemen esandakoak norbaiti argibideak eskaini ziezazkiokeelakoan, eta aldi berean gogait norberak egindako lana astintzeak sortzen didan hotzikaragatik, gogait nolabait ere zeure islada den liburuan, zeure burua ikusteak lotsarazten zaituelako.

Eta horrela luzamendutan ibili naiz, nire egitekoa gaurtik biharrera eta bihartik etzira utziaz, eta nire lagunaren enbidoei “paso” eta “jaso” erantzunaz. Baina oraingoan eutsi egin diot enbidoari, eta horra nire gogoetak.

Aurretikako alfabetatze- -materiala

Liburu hau HABEren Alfabetatze Sailak materialgintzan eman dituen emaitzen barruan kokatu behar da. Lehenengo urratsa 1983an eman zen, *Helduen Alfabetatzerako Programazioa* argitaratuz. Bertan, alfabetatzearen ikuspegi orokorra, edukien programa eta zenbait material erabilgarri –testu, inprimaki, irakurgai...– eskaintzen dira.

Liburu hori abiapuntutzat hartuz, baina material zehatzagoa eskaintzeko

asmoz, *Helduak Alfabetatzen. Lehenengo Maila* ematen da argitara 1984ean. Langai horiek EGA mailaraino iritsi beharrik ez duen euskaldun zaharren alfabetatzerako prestatu ziren. Bi urte geroago, 1986an, *Alfabetatzerako langaiak. Bizkaieratik Baturantz* material-liburua argitaratzen da, aurrekoaren helburu berarekin eta bizkaieraz mintzatzen diren euskaldun zaharrei bereziki zuzendua.

Esan bezala, bi material-bilduma hauek helburu beretsua dute, hau da, EGAK eskatzen duen mailaraino iristeke, irakurmen eta idazmenaren arloan batez ere, eguneroko premia arruntei euskaraz erantzuteko gaitasuna lortzea.

Eta alfabetatzeko ikastaroetara EGA maila lortzeko asmotan zetozen euskaldunentzat, zer? Hauek ere behar zuten lanerako materiala. Eta honela, *Helduen Alfabetatzerako Programazioa* oinarri hartuz, alfabetatzerako behin-behineko programa eratu zen, 28 atalez osatua eta bi mailatan banatua. Aurreneko 14 atalek, nolabait esateko, alfabetatzearen oinarritzeko maila osatuko zuten, eta ondorengoak EGA maila lortu arteko bidea urratzeko izango ziren. Guztira, 400 inguru ordutako lana aurrikusten zen. Bestalde, programa hau lau ardatzen inguruan harilkatua zegoen: idazmena, irakurmena, mintzamina eta hizkuntz ezagupenak. Esan beharra dago edukien banaketan gramatikaren sistematizazio-ordenari eusten zitzaiola gehienbat.

Hastapenak

Programa hori gidari, 1985-1986 ikasturtean zenbait euskaltegi alfabetatze-ikastaroei ekin zieten, baita horretarako behar zuten materialak sortzen edo biltzen hasi ere. Lau euskaltegi izan ziren bereziki lan horretan ihardun zutenak: Arrasate, Azpeitia, Legazpi eta Tolosako Udal Euskaltegiak, hain zuzen.

Pentsatzen genuen material hori guztia izanez gero, liburu bat argitaratzeko nahikoa gai izango zela. Baina dena bildu ondoren, oso material heterogeneoarekin aurkitu ginen, lehendik argitara emandako zenbaiten bilduma gehienbat.

Horrela, bada, Alfabetatze Sailak Agurtzane Maiz eta nire esku utzi zuen material berria osatzeko eginkizuna, eta gure elkarlanaren fruitu duzu *Euskaldunak Euskaraz Jazten. Murgilduz* liburua.

Izena

Zergatik izenburu hori? Orain arte alfabetatzera zuzendutako ia material gehienek “Alfabetatze” hitza zuten izenburuan, (“Alfabetatzen”, “Alfabetatzeko langaiak”, “Helduak Alfabetatzen”...). Hitz hori errotua dago bere esanahi berezian gure artean, baina beste konotazioak ere baditu gure esparrutik kanpo, eta han-hemenka sortu izan dira hitz hori aldatu beharra aldarrikatzen duten hotsak.

Gure aldetik, izenburuan euskaldunei, euskararen jabe direnei, zuzenduriko materiala dela azpimarratu nahi izan dugu; eta, bestalde, euskal alfabetagintza euskaraz janztearekin irudikatu da. Bada beste azpigitulu bat, laburragoa hau, besteari lekua jan diona, orain liburu hau aipatzean

“Murgilduz” hitzarekin identifikatzen baita. Izenak berak sugeritzen duenez, euskal hiztunari euskal letretan murgiltzen laguntzea du material honek helburu. Murgil gaitzen, bada, liburuan barrena, hasteko bere azaleko egiturari erreparatuz.

Egitura

Murgilduz 14 unitatez dago osatua. Ikasgai bakoitzeko 15 ordutako lana eskaini nahi izan da; guztira, 210 ordu. Horrela mugatzeko arrazoia zera izan zen: eredu bezala egunean hiru ordutako erritmoan jarduten zuten euskaltegiak izan genituela gogoan, ikasgaia aste betera mugatuz.

Material hau burutzerakoan, lehenago aipatu dugun programa izan dugu begien aurrean; areago, abiapuntu, eredu eta gidari.

Gure egitekoa egiturak lantzeko ariketak osatzea zen, irakurtzeko testuak bilatu eta aukeratzea –eta arlo honi aparteko garrantzia ematen zaio alfabetagintzaren maila honetan–, hiztegia lantzea...; hitz batean, programa langai edo ariketaz hornitzea.

Testu eta gramatikaren integrazioa

Horretarako, ez dakit metodo zehatz batez baliatu ginela esan daitekeen; bai, ordea, lan honetan printzipio metodologiko-didaktiko zenbait izan genituela abiapuntu eta jomuga, ondoren aipatuko ditugunak. Hasteko, gure helburu nagusienetako bat testuen eta gramatikaren arteko integrazioa lortzea izan dela esan behar.

Oraintsu arte, salbuespenak salbuespen, alfabetatzea, alde batetik, deklinabidea ikastea izan da, aditzaren paradigma korapilotsua deszifratzea, “h” eta beste ortografi araez jabetzea, sintaxia eta hiztegia aberastea; eta, bestetik, testu batzuk irakurtzea eta idatzarriketak zuzentasunez burutzea. Esan daiteke hizkuntzalaritza aplikatuaren korrante berriek euskalduntze-arloan izan duten islada ez dela hainbeste nabarmendu alfabetatze-munduan. Ez dut esan nahi inolako ahaleginik egin ez denik; airtortu behar, halere, nolabaiteko atomizazioa edo haustura ikusten dela gramatika eta irakur-idatz-testuak lantzeko orduan. Eta, hain zuzen, gure materialgintzaren helburu nagusienetako bat banaketaren ordeztasun integratioa aurkitzea izan da, planteamendu paradigmantikotik sintagmatikora pasatzea, gramatika testutik kanpo landu ordeztasun bertan eta kontestuan lantzeraz.

Adibidez, eta egoera ideal batean honelako integrazioa gerta daiteke: komunikazio-behar batzuek eraginda, batek halako ataza konkretu bat egin behar du, esaterako, txeke bat luzatu; baina, zenbakiak idazterakoan zailtasunak dituenek, zenbakien gaia jorratzen da. Horrela testuaren –kasu honetan txekea da testua– eta gramatikaren –zenbakien idazkera– arteko integrazioa ematen da eta gainera kontestu komunikatiboan.

Bestelakoa da, ordea, errealitatea. Batetik, ez dago euskaraz komunikatzeko beharrik edo derrigortasunik. Euskaraz ez badakizu, erdarara jo eta kito. Aukerako, borondatezko “behar” komunikatiboa dugu gure kasuan.

Bestalde, ikasgelako egoera ez da erreal, eguneroko bizitzatik, urrunago edo gertuago, baina beti ere kanpo dagoen simulazioa baizik.

Gainera, eta hau nahiko paradajikoa da, gure abiapuntua alde aurretik ezarritako programa izan dugu, hizkuntz eduki zerrendatua; eta hauei egokitzen saiatu gara testuak eta egoera komunikatiboak simulatzen eta ez alderantziz, berez behar zukeen bezala. Hori dela eta, integrazio-saio horretan etenak eta urratuak nabari dira. Batzuetan testuak bere onetik atereak izango dira, hurrena gramatika-atalak testuingururik gabeak. Dena den, hor dago saioa eta ahalegina.

Deduktiboa/ induktiboa

Metodo deduktiboa/induktiboa dilemaren aurrean induktiboaren alde jokatu dugu. Horrela, inputa aurkezterakoan ez gara arauak emanez abiatu; aldiz, ikasleek jadanik dakiten horren gain oinarritu nahi izan dugu, berea duten hizkuntza implizitua esplizitatu, ezezagunak zaizkien ezagutza-arloetarako bidea urratzen lagundu, esperimentalki eta adibidez adibide araua aurki dezaten.

Gaiak eta interesguneak

Kultura orokorreko gaiak ukitzen saiatu gara, literaturara bakarrik mugatu gabe. Testu errealak erabili ditugu, dauden-daudenean gehienak, normalean erreportaia edo kronika antzeko artikulua. Horiek aukeratzekoan, kontuan izan dugu artikuluen euskara-maila, eta baita zailtasun-maila eta edukiak lantzeko eskaintzen dituen posibilitateak ere. Agian, idazki horietako euskara ez da hain aberatsa, ez da lokuzio eta modismoz josia, ez da herri-sustraietan umotua. Gazi-gozo gutxikoa dela botako du zenbaitek, eta ez du arrazoirik falta izango; liburu honetan azaltzen den euskara astegun gorrikoa baita, eguneroko gaiak adierazteko erabili ohi dena; txukuna eta xuxena bai, baina apainduria gehiegirik gabea. Hutsune hori gaingitzea irakasleak literaturako testuetara jo beharko du, baita ahozko testuetara ere, euskara bizi eta aberatsaren iturrietara alegia.

Gaiaren tratamenduari dagokionez, ikasgaiak interesgune batzuen inguruan daude moldatuak, laugarren unitatetik aurrera bereziki. Horietako batzuk Bidaiak, Telebista, Kutxa eta banka, Aisialdia, Osasuna... dituzu. Horrela, gai monografiko hauek lehen aipatu dugun integrazio horretan sakonduz, batasuna eta osotasuna eman nahi dizkiete ikasgaiei. Gaiak unitate barruan jarraipen bat du, eta bai testuak eta bai ariketak elkarri lotuak daude, ikasleari eskatzen zaizkion atazetaraino gidatuz.

Ikasgaia topiko nagusi bakar batean biltzeak ikaslearen atentzioa zentratzea dakar. Gainera, gaia gogoko badu, eta jakinmina sortu badio, beste iturrietara jotzeko bidea zabalik utziko dio, beste testuak arakatzeko, ataza berriak planteatzeko...

Proiektugintza- rako?

Puntu honetara iritsiz, iruditzen zait posible dela ikasgaia proiektu bezala antolatzea. Guk, materiala burutzean, ez genuen berriaz hori gogoan izan, baina gerora posibilitate hori behin baino gehiagotan bururatu

zaigu eta irakasleei biziki gomendatuko genieke ikasgairen bat edo beste proiektu eran planteatzea.

Norentzako

Alfabetatze-ikastaroetan ari direnen kopuru murrizak berak mugatzen du liburuaren norentzakoa. Izan ere, argitalpena 1.000 alekoa izanik, eta liburu bakarra gainera, ikasle edo irakaslearen arteko aukera egitean ikaslearen alde jo dugu eta berari dago gehienbat zuzendurik liburua. Irakasleari, bada, dagokio ariketetan zehar “ezkutuan” –horrela aitortu digute zenbait irakaslek– dagoen haria askatzea, liburuaren hezurdura argitzea; beste hitzetan, programazioa burutzea.

Gidatua/askea

Antolaketa aldetik, *Murgilduz* material gidatua dela esango genuke. Liburua dagoen-dagoenean hasi eta buka emateko moduan dago prestatua. Honek ez du esan nahi horrela alfabetatzearen helburuak besterik gabe betetzen direnik. Zenbait arlo gehiago eta sakonago jorratu behar-ko dira, beste zenbait arinago; baztertu beharrekoak ere izango dira. Gure asmoa zenbait ariketa proposatzea izan da, ahalik eta ezberdine-nak, irakasleak berak horien eradura eta beharren arabera beste batzuk sor ditzan bidea zabalduz. Beraz, begiratu batera gidatua eta “itxia” iru-ditu arren, bide ematen du osatzeko eta behar adina egokitzeko; lehen-xeago aipatu dugun proiektugintzarena, kasu.

Balorazio orokorra

Bukatzeko, balorazio orokor bat ematekotan, aitortu behar dugu ez daki-gula ziur zenbateraino erabiltzen den material hau. Erabili duten irakasle batzuek –losintxa modura agian– liburuaren balioa eta aberastasuna go-raipatu dituzte, ordurarte ez-ohizko bide berriak urratzearen meritua az-pimarratuz. Gure ikuspegitik, aurrerapausu bat izan zen, bereziki gramatikaren eta testuaren arteko integrazioa lortzeko bidean. Halere, aurrera jo beharra zegoen testu-gramatikara iristeko. Eta hori gauzatuko zen handik bi urtetara argitara eman zen *Sortuz* liburuan, hurrengo ale batean hemen bertan azalduko duguna. Laburbilduz, aurreko alfabetatzerako langaien eta ondorengo *Sortuz* liburuaren arteko zubi genuke *Murgilduz*.